

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

5100

EBAZPENA, 2017ko urriaren 10ekoa, Kulturako sailburuordearena, museoetarako eta bildumetarako 2017ko diru-laguntzak emateko osatu behar den Balioespen Batzordeko kideak izendatzen eta argitara ematen dituena.

Ikusi da 2017. urteko Euskadiko museo eta bildumetarako diru-laguntzak iragartzen eta arautzen dituen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2017ko abuztuaren 18ko Agindua.

Agindu horretako 13. artikulua dioenez, Balioespen Batzordearen osaera Kulturako sailburuordearen ebazpen baten bitartez jakinaraziko da.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Balioespen Batzordearen kideak izendatzea eta osaera jakinaraztea. Hona hemen kideak:

Lehendakaria: Mikel Xabier Aizpuru Murua jauna, Kultura Ondarearen zuzendaria.

Bokalak:

- Iñaki Arrieta Urtizberea jauna.
- Miren Aurkene Alzua Sorzabal andrea.
- María Teresa Izquierdo Marculeta andrea, Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria.
- Mikel Carrillo de la Peña jauna, Kultura Ondarearen Zuzendaritzako teknikaria, idazkaria izango dena.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko urriaren 10a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.